Landare «ardi-jalea»

Hego Amerikan, Txileko Andeetan, landare bitxi bat bizi da. *Puya chilensis* da haren izen zientifikoa, baina mendikate hartako artzainek landare «ardi-jalea» deitzen diote.

Landare horrek arantza luze eta zorrotzak ditu, eta haren ingurura hurbiltzen diren ardiak eta txoriak trabatuta geratzen dira arantzen artean, eta azkenean hil egiten dira gosearen gosez.

Gero, arantza artean hildako animalia horiek bertan usteltzen dira, eta horretara landarearen azpiko lurra ongarritu egiten dute. Eta ongarri horri esker, hiru metrorainoko landare sendo berriak hazten dira. Hori dela-eta, Andeetako artzainek su eman ohi diete landare hiltzaile horiei.

Horiek bai landare haragijaleak, eta ez intsektutxoak jan ohi dituzten landare exotiko kaltegabeak!



1 Erantzun galdera hauei.

- Zein da landare «ardi-jalearen» izen zientifikoa?

- Zein animalia geratu ohi dira trabatuta landare horren arantza artean?

- Zer egiten dute artzainek landare horiekin? Zergatik?

2 Andeak mendikatea dira, baina zer da mendikate bat?

- [ ] Mendi oso handia.
- [ ] Hainbat mendiz osatutako lurraldea.

3 Markatu Hego Amerika irudikatzen duen mapa. Ondoren, margotu Txile gorriz.

4 Idatzi hitz bakoitza dagokion definizioaren ondoan.

haragijale artzain ongarri arantza exotiko

- Ardiak zaintzen dituena: _____
- Zenbait landaretan sortzen den ziri zorrotza: _____
- Haragia jaten duen izakia: _____
- Lurra emankorrago bihurtzen duen substantzia: _____
- Urrutiko herrialde batekoa; bitxia, berezia: _____

5 Ordenatu, zenbakien bidez, esaldi hauek.

- ( ) Ardia hil egiten da gosez.
- ( ) Ardia landareen arantza artean trabatuta geratzen da.
- ( ) Ongarriari esker, landarea sendo hazten da.
- ( ) Ardiaren haragia usteldu egiten da, landarearen inguruko lurra ongarrituz.

6 Lotu esaera zahar hauek.

Ardi batek ▪	▪ beti arkumea.
Negua nolakoa ▪	▪ ez du artaldea egiten.
Ardiaren umea ▪	▪ ardiaren ilea halakoa.

NORK kasua

GOGORATU

NORK kasuan dauden hitzek **–k** hartzen dute hitz bukaeran. NOR kasukoek ez.

NORK egin du marrazkia? Julenek egin du.

NOR etorri da? Julen etorri da.

1 Sailkatu esaldietan nabarmendutako hitzak.

- **Ilargiak** ez du argirik ematen.
- **Guk** txistua jotzen dakigu.
- **Eneko** tenis-jokalaria da.
- **Zuek** deitu didazue, ezta?
- **Haiek** hondartzara joan dira.
- **Oihana** zuhaitzez beteta dago.
- **Zu** bihar nirekin etorriko zara etxera.
- **Zuek** zarete hurrengoak.

NOR: _____

NORK: _____

2 Jarri NORK kasuko -*k* letra hitz hauei.

gu ▸ _____ Eneko ▸ _____

Uxue ▸ _____ Ines ▸ _____

ni ▸ _____ hura ▸ _____

zu ▸ _____ denak ▸ _____

3 Osatu esaldiak hitz hauek erabiliz.

Elefanteek Elefanteak Elefantea

- _____ oihanetan bizi diren animalia handiak dira.
- _____ tronpa erabiltzen dute janaria eta ura ahora eramateko.
- _____ oso animalia arriskutsua da, haserretzen denean.

4 Inguratu zuzena.

- *Ni/Nik* ogia erosiko dut eta *zu/zuk* mahaia jarriko duzu.
- *Lore/Lorek* berandu etorri da eskolara.
- *Irakaslea/Irakasleak* haserretu egin da.
- *Ikasleak/Ikasleek* txangoan joan dira Arrasatera.
- *Nor/Nork* hautsi du ikasgelako leihoa?

5 Zuzendu esaldi hauetako akatsak.

- Mirenek eta Aitorrek nire alboan jarri dira ikasgelan.

- Uxue eta Iker atzeko eserlekuak hartu dituzte.

- Leire esekilekuan utzi du motxila.

- Irakasleak gurekin batera eseri da.

6 Lotu bi atalak esaldiak osatzeko.

Zuk ▪	▪ zinemara joango zara gero.
Leirek ▪	▪ autoz joaten da eskolara.
Leire ▪	▪ ez dauka berokirik.
Mendiak ▪	▪ oso garaia da.
Mendia ▪	▪ gitarra jotzen dakizu.
Zu ▪	▪ tontor zorrotza du.

7 Berridatzi esaldiak pluralean, adibidean bezala.

- Nire **laguna** garaiz heltzen **da** eskolara egunero.
  *Nire **lagunak** garaiz heltzen **dira** eskolara egunero.*
- **Irakasleak** hirugarren mailako ikasleak agurtu **ditu**.
  ***Irakasleek** hirugarren mailako ikasleak agurtu **dituzte**.*
- Lehengusua gure etxera etorriko da uda pasatzera.

_____

- Baserritarrak barazkiak eta arrautzak saltzen ditu.

_____

- Arkatza mahai azpira erori da.

_____

- Txakurrak korrika alde egin du.

_____

8 Osatu testua hitz hauekin.

loreontzia haiek Jokinek Loreontzi Landarea Auzokideak

Loreontzi berria

Gaur goizean _____ bere balkoiko landarea aldatu du. _____ oso handi zegoen eta _____ oso txikia zen; beraz, berri bat erosi du, handiagoa. _____ berriak pisu handia zuenez, laguntza eskatu die auzokideei, eta _____ poz-pozik lagundu diote Jokini. _____ Nahia eta Pedro deitzen dira eta oso jatorrak dira.

Silaba



1 Ordenatu silabak eta osatu hitzak.

rra /ka /rro /a /ma

ren /ge /he /su /a

ki /a /lo /rras /ba

2 Osatu hitzak. Ondoren, sailkatu beheko tauletan.

txe

ki

ta

rri

pos

ma

3 silabakoak	4 silabakoak	5 silabakoak

3 Zatikatu hitzak adibidean bezala.

- arbela ▶ ar-be-la
- txakurra ▶
- saskia ▶
- txoritxoa ▶
- perretxikoa ▶
- betaurrekoak ▶

1 **Lotu. Nori idatziko liokete oharra ezkerreko pertsonaiek?**

Sukaldariak ▪	▪ alabari.
Alkateak ▪	▪ erizainari.
Aitak ▪	▪ udaltzainari.
Medikuak ▪	▪ zerbitzariari.

2 **Asmatu pertsonaia bakoitzak zein ohar idatzi duen eta idatzi izena azpian.**

Sukaldaria

Alkatea

Aita

Medikua

Laztana, lanera joan naiz. Hartu gosaria eta garaiz joan eskolara. Ez ahaztu euritakoa hartzea, gaur euria ari du-eta.

_____

Janaria azpiletan duzu. Zerbitzatu lehenik entsalada eta arrautza egosiak. Ondoren atera zopa eta oilaskoa. Postrea hozkailuan dago.

_____

Udaletxera nentorrela, lau auto ikusi ditut espaloi gainean aparkatuta. Zoaz eta konpondu arazoa, ez baita itxura herriarentzat.

_____

Odol-analisiak behar ditu Mikel Urizar izeneko gaixoak. Mesedez, atera iezaiozu odola hurrengo kontsultan.

_____

3 **Irakurri oharra eta erantzun galderei.**

- Norentzat da oharra?
- Nork idatzi du?
- Zertarako idatzi du?

Ikasleok:

Eskolako baratzean nago eta beranduxeago helduko naiz.

Matematikako lanak egin itzazue ni heldu arte: ariketa-koadernoko 87. orrialdeko 1.-5. ariketak.

Egon isilik, mesedez, eta bakoitzak bere lana egin dezala.

Andereño Maite

4 **Bi oharrak apurtu eta zatiak nahasi egin dira. Ordenatu zatiak eta idatzi bi oharrak.**

Maitane

Itsaso:

Liburutegira joan gara Inguruneko lana egitera. Etorri zeu ere.

Gaur irakasleak ohar bat eman dit, zuek sinatzeko. Sukaldeko mahaian dago.

Ama eta aita:

Oier eta Peru